



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2026/1004 DEKRETUA

2025. URTEKO DEIALDIA ONDARROAKO UDALERRIAN HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERAK EGITEA FINANTZATZEKO ERABILIKO DIREN UDALEKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUDEA BALIATUZ EMATEKO

2026/1026 ESPEDIENTEA: HEZKUNTZAKO JARDUERAK

2026/1027 ESPEDIENTEA: KULTURARTEKOTASUN PROIEKTUAK

Osoko Bilkurak 2025eko ekainaren 26an hartutako erabakian urte horretako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskinean hezkuntza arloko dirulaguntzak jaso dira.

Aztertu da 2026ko ekitaldirako onartutako aurrekontua, Ondarroako Udalak eskainiko dituen norgehiagoka askeko dirulaguntzak ezartzen dituen. Egiaztatu da aurrekontu-partida hauek daudela hezkuntza arloan:

Aurrekontu-partida	Azalpena	Kredituaren zenbatekoa
030/00 3342-0 480.01.00	Gazte ekintzak / Hezkuntza arloko dirulaguntzak	20.000,00€
030/00 3261-0 480.01.00	Beste irakaskuntzak / Kulturartekotasun proiektuak	2.000,00€

Ikusita, baita ere, Ondarroako Udalean aurreikusita dagoela dirulaguntzen banaketa arautzen duen ordenantza orokorraren 14. artikuluan, oro har, norgehiagoka araubidea baliatuz izapidetuko dela.

Ikusita, baita ere, Udal Idazkariak eta Udalaren Kontu-hartzaileak burututako aldeko txostenak.

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Ondarroako udalerrian 2025ean hezkuntzaren arloan egin diren jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak emateko urteko deialdi publikoa onartzea, gehienez, 20.000,00 eurokoa, 030/00 3342-0 480.01.00 aurrekontu-partidaren kargura, eta, gehienez, 2.000,00 eurokoa, 030/00 3261-0 480.01.00 aurrekontu-partidaren kargura, hurrenez hurren, eta deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agintzea.

BIGARRENA.- Deialdia hurrengo eranskinean zehazten denaren arabera izapidetuko da:



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

ERANSKINA

ONDARROAKO UDALERRIAN HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERAK EGITEA FINANTZATZEKO ERABILIKO DIREN UDALEKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAU BIDEA BALIATUZ EMATEKO DEIALDIA.

LEHENA.- Xedea, aplikazio-eremua eta sartzen ez diren gastuak

1.- Honako laguntza hauek eman nahi dira Ondarroan hezkuntza arloan egingo diren jarduerak finantzatu ahal izateko 2025. urtean, hain zuzen ere, jarduerak egiten dituztenen gastuak ordaintzeko, baita bertan garaturiko jarduera-egitarauen ondoriozko gastuak ordaintzeko ere.

Ohiko jardueraren ondoriozko gastuetarako erabiliko dira laguntzak, hots, erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu-egitarauaren barruko jarduerari dagozkienak.

2.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak: Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira hezkuntzaren sustapenerako jarduerak garatzeko beharrezkoak diren gastu arruntak, betiere, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote.

Honako dirulaguntza-lerro hauek ezarri dira:

A. Hezkuntza arloko jardueretara bideratutakoak; baldin eta jarduera horiek

Ondarroako haur eta gazteen aisialdirako, eskolako programazio orokorraren jarduerak osatzeko eta eskolaz kanpoko ekintzak antolatze badiara; bai eta gurasoen prestakuntzara bideratutakoak ere.

B. Euskara eta Kulturartekotasuna uzartzen dituzten proiektuetara bideratutakoak.

Ezin izango dira diruz lagundu sexuagatik diskriminatzen duten jarduerak.

3.- Ez dira sartzen deialdi honen xedearen barruan:

- Inbertsioak ekipamenduetan, obretan, berrikuntzetan edo antzekoetan.
- Langileen prestakuntza-gastuak.
- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean.

4.- Oro har, deialdi honetan finantzatuko dira 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egingo diren jarduera guztiak, egun bi horiek barne.

BIGARRENA.- Araubide juridikoa eta oinarri arautzaileak



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Aplikatu beharreko araubide juridikoa deialdi hau onartzen den unean indarrean dagoen Ondarroako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da. Ordenantza hori da laguntza honen oinarri arautzailea, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan xedatutakoa ere.

HIRUGARRENA.- Aurrekontu erabilgarria

Arlo honetan dirulaguntza jaso dezaketen ohiko jardueren artean banatu beharreko gehieneko kopuruak ondorengo hauek izango dira eta deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzeko jarraian zehaztutako partiden kargura egingo da gastua:

Aurrekontu-partida	Azalpena	Kredituaren zenbatekoa
030/00 3342-0 480.01.00	Gazte ekintzak / Hezkuntza arloko dirulaguntzak	20.000,00€
030/00 3261-0 480.01.00	Beste irakaskuntzak / Kulturartekotasun proiektuak	2.000,00€

LAUGARRENA.- Emate-araubidea eta printzipioak

1.- Deialdi honetan araututako laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, hamabigarren oinarrian ezarritako gehieneko kopuru eta muga arabera.

2.- Halaber, honako printzipio hauei lotuta emango dira laguntzak: publizitate, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioa, laguntza ematen duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasun printzipioa eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasun printzipioa.

3.- Eman beharreko gehieneko kopuruak ez dira izango inola ere laguntzak eskatzean zerbitzu edo produktu baliokideek merkatuan duten batez besteko prezioa baino handiagoak.

BOSGARRENA.- Onuradunak



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Ondarroako udalerrirako interesgarriak diren hezkuntza-jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke laguntzen onuradun, Ondarroako Udalak arlo horretan egiten dituen jarduerak areagotu, osatu edo ordezkatzuz.

Pertsona fisikoen kasuan, Ondarroako udalerrian erroldatuta egon beharko dute, eskaera egin baino urtebete lehenagotik gutxienez, etenik gabe.

Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egon beharko dute eta egoitza edo ordezkaritza Ondarroako udalerrian izan beharko dute edo Ondarroa izatea haien jarduera-eremua. Salbuespen gisa, egoitza edo jarduketa eremua Ondarroan ez izan arren, udalak interesgarritzat jotzen dituen jarduerak edo proiektuak garatzen dituztenak.

SEIGARRENA.- Onuradun izateko baldintza orokorrak
--

1.- Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke laguntza hauen onuradun:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- b) Erakundeen kasuan, dagokion erregistroan inskribatuta egotea (hala badagokio).
- c) Diruz lagundutako jarduera sozietatearen xedearen edo estatutuetako helburuen barruan egotea.
- d) Ondarroako Udalak aurretik emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatu izana, hala badagokio.
- e) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuak ez betetzea.
- f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkako jarduerarik ez egitea, eta printzipio hori urratzeagatik zehapenik ez jasotzea.

2.- Honako hauek ezin izango dira, inola ere, onuradun izan:

- a) Pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.
- b) Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezarako eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan-edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakunde edo enpresak.

ZAZIPGARRENA.- Eskabidea aurkezteko epea, modua eta dokumentazioa

1.- Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 2026ko irailaren 30era artekoa izango da.

2.- Modua: Deialdi honi atxikitutako eskaera eredian egin beharko dira dekretu honetan araupeturiko laguntzak eskuratzeko eskabideak. Udalak telematika bidez eman ahal izango die eredu hori hala eskatzen duten pertsona guztiei.

Pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen kasuan, Ondarroako Udalak Kantoipe kaleko 3.ean duen Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira eskabideak. Era berean, telematikoki aurkeztu ahal izango dira Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez: www.ondarroa.eus

Elkarteei edo bestelako pertsona juridikoei zuzendutako dirulaguntzen kasuan, telematikoki aurkeztu behar dira Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez: www.ondarroa.eus

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako eran eta tokian aurkeztu ahal izango dira.

3.- Eskabidean beren-beregi utziko da jasota jakinarazpenetarako adierazitako helbidea. Eskatzailearen egitekoa izango da Ondarroako Udalari beren-beregi jakinaraztea datuetan izandako edozein aldaketa, bereziki eskatzailearen helbideari eta bankuko datuei dagokienez.

4.- Dokumentazioa: Eskabidearekin batera, hauexek gehitu beharko dira:

- a) Eskaerak pertsona juridiko baten izenean aurkezten direnean, entitate horren izenean jarduteko pertsona fisikoaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria eta Estatutuen kopia aurkeztuko dira.
- b) Dirulaguntza izan nahi duen jardueraren edo jardueraren proiektu zehaztua, eta honako hauek bildu behar ditu nahitaez proiektuak:
 - Ekintzaren proiektuaren izena.
 - Ekintzaren deskribapena
 - Ekintzaren iraupena eta egutegia
 - Helburuak.
 - Parte hartzaile kopurua
 - Bazkide kopurua



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- Ekintzarako jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena
- c) Zenbatetsitako aurrekontua, behar bezala zehaztua eta banakatua, non proposaturiko jardueren kostua eta beste erakunde batzuek egingo duten ekarpenaren aurreikuspena agertuko den, baita erabiltzaileek, hala denean, egingo duten ekarpenaren aurreikuspena edo bestelako edozein sarrera ere (Eskaeraren I. Eranskina – Ekintzak sortutako diru-sarrerak eta gastuak).
- d) Eskatzaileak eginiko ekintzaren memoria.
- e) II. Eranskina – Erantzukizunpeko adierazpena.
- f) III. Eranskina – Hartzekodunen-fitxa.
- g) Pertsonal propioa jarduera egiteko egozten denean: pertsonalaren zerrenda eta horren kostuaren aurrekontua, lanpostuaren edota lanbide-kategoriaren, jarduerari egokitzeko dedikazioaren eta lanpostuaren urteko kostuaren deskribapena duena.

5.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3. artikuluan ezarritakoa betez, dirulaguntza jaso dezakeen zenbatekoa 40.000,00 eurotik gorakoa denean obrak egiteko eta 15.000,00 eurokoa zerbitzugintzarako edo ondasunak emateko, erakunde desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu konpromisoa hartu baino lehen betiere, salbu eta dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziak direla-eta obra egiteko eta zerbitzugintzarako edo ondasuna emateko nahikoa entitate ez dagoenean edo gastua dirulaguntza baino lehen egin denean salbu.

Eraginkortasun eta ekonomia printzipioen arabera aukeratuko dira eskaintzak, eta justifikazioan eman beharrekoak edo, hala denean, dirulaguntzaren eskabidean. Hartara, beren-beregi justifikatu behar da aukeraketa memoria batean proposamenik merkeena esleitzen ez denean.

6.- Udalak, kasu zehatzaren arabera, aurkezturiko proiektu osoa baloratzeko egokitzat jotzen dituen beste agiri osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen elkarreragingarritasuna

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, eta eskatzaileak eskaeran berariaz aurka egin ezean, Ondarroako Udalak ofizioz ekingo dio honako datu hauek kontsultatzeari, dauzkan elkarreragingarritasun-bideak erabiliz:

- NAN.
- Erroldatzea.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

BEDERATZIGARRENA.- Eskabidea zuzentzea eta txostenak eskatzea

Ondarroako Udalak, denbora eta modu egokian aurkezturiko eskabideei dagokienez, hauxe egiaztatuko du: ea eskabideek laguntzak emateko galdaturiko beharkizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten. Hala ez bada, hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko eskatuko dio eskabidea aurkeztu duenari, eta ohartarazpena egingo zaio: hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

HAMARGARRENA.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

1.- Instrukzio-organoa: Prozeduraren instrukzioa hezkuntza arloko teknikariari dagokio. Instrukzio-organoak ofizioz egingo ditu datuak zehaztu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

2.- Balorazio Batzordea: Balorazio Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: teknikari instruktoreak, Udal Idazkariak, Udal Kontu-hartzaileak eta Udaleko beste teknikari batek. Batzorde horren helburua da txosten arrazoitu bat egitea, egindako balorazio teknikoaren emaitza zehaztuz, Alkatetzari emateko proposamen gisa.

3.- Ebazteko eskumena duen organoa: Alkatetza da deialdi hau ebazteko organo eskuduna, Balorazio Batzordeak egindako emakida-proposamenaren arabera.

4.- Ebazteko epea: Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

5.- Publizitatea eta Errekurtsoak: Ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS), egoitza elektronikoan eta udalaren webgunean argitaratuko da, gardentasunari eta datuak babesteari buruzko araudiaren arabera.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari.

HAMAIKAGARRENA.- Irizpide bakoitzari atxikitako balorazio eta haztapen irizpideak

1.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 15.1.l) artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eskabideak baloratzeko irizpide hauek ezarri dira, eta, gehienez ere, 100 puntu eman ahal izango dira: irizpide orokorrak 56, puntura arte eta irizpide espezifikoak, lerro bakoitzari dagozkionak, 44 puntura arte, gehienez.

IRIZPIDE OROKORRAK			PUNTUAZIOA gehienez 56 p.
Programaren edukia			Gehienez, 10 p.
1	Hartzaileak eta xede taldeak identifikatzea	• Ekintza/proiektuaren parte-hartzaile kopurua • Zenbat emakumezko/gizonezko • Zein biztanleriari zuzentzen zaion identifikatzea	2
2	Egonkortasuna	• Ekintza/proiektua urterik urte egiten da? - Bi urte jarraian: puntu 1 - 3-5 urte: 2 puntu - 5 urte baino gehiago: 4 puntu	4
3	Proiektu txikiak	• 3.000€-arteko ekintzak	4
Partaidetza eta kolaborazioa			Gehienez, 14 p.
4	Sare-lana	• Beste elkarteekin batera jardutea	4
5	Parte hartzea	• Parte hartzea dagokion udal batzordeko batzarretan: 6 puntu • Parte hartzea beste udal batzordean edo udalak antolatutako jardueretan: 4 puntu	10
Erakundea			Gehienez, 8 p.
6	Taldearen ibilbidea	• Taldeak zenbat denbora daraman esparrua lantzen - 2 urte baino gutxiago: 1 puntu - 3-5 urte: 2 puntu - 5 urte baino gehiago: 4 puntu	4
7	Taldeko ordezkaritza	• Ordezkaritza orekatua legearen arabera: emakumezkoak %40tik %60ra edo emakumeen elkartea izatea	4
Zehar lerroen lanketa			Gehienez, 24 p.
8	Euskararen erabilera	• Aurkeztutako programan euskararen erabilera nola landu den: - Espedientea euskaraz tramitatua, ahoz eta idatziz: 2 puntu - Ekintza euskaraz gauzatuko bada: 4 puntu - Ekintza erdaraz, baina aurkezpena euskaraz: puntu 1	6



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

9	Emakumeen eta gizonen berdintasuna	- Aurkeztutako programan emakumeen eta gizonen berdintasuna nola landu den: - neurri eraginkorrak daude: 6 puntu - neurri batzuk daude: 4 puntu - aipatu egiten da soilik: puntu 1 - ez da aipatzen: 0 puntu	6
10	Ingurumena	- Aurkeztutako programan ingurumen gaiak nola landu diren: - neurri eraginkorrak daude: 6 puntu - neurri batzuk daude: 4 puntu - aipatu egiten da soilik: puntu 1 - ez da aipatzen: 0 puntu	6
11	Kultur aniztasuna	- Aurkeztutako programan kultur aniztasuna nola landu den: - neurri eraginkorrak daude: 6 puntu - neurri batzuk daude: 4 puntu - aipatu egiten da soilik: puntu 1 - ez da aipatzen: 0 puntu	6

HEZKUNTZAKO JARDUERETARAKO BALORAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

A. LERROA: HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERAK - ARLOKO IRIZPIDEEN LANKETA (Gehienez, 44 ptu.)

IRIZPIDEA	Ptu	Oharrak
Euskara: jarduera euskaraz gauzatzea.	6	☐
Kultur aniztasuna: Herrira etorri berriek parte hartzeko neurriak	6	☐
Sormena: ekintza propio egin dago horretarako (3 p.) edota neurri zehatzak daude hori sustatzeko (3 p.)	6	☐
Proiektzioa: herri mailako proiektzioa	6	☐
Osasun ohitura egokiak: jarduera fisikoa, elikadura-heziketa, estresa gainditzea...	4	☐
Hezkidetzaren begirada: Hezkidetza programan udalak antolatutako jardueretan parte hartzea (2 p.) Proiektuan hezkidetza txertatuta egotea (2 p.)	4	☐
Autonomia: ardurak eta erabakiak hartzea bultzatzea.	3	☐
Aniztasun funtzionalak sortutako mugak gainditzeko neurriak.	3	☐
Zailtasun sozioekonomikoko mugak murrizteko neurriak.	3	☐
GTBIQ+ begirada: ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna.	3	☐

B. LERROA: KULTURARTEKOTASUN PROIEKTUAK - ARLOKO IRIZPIDEEN LANKETA (Gehienez, 44 ptu.)

Ildoen lanketa	Ikastetxearen Organo Gorenak euskara eta kulturartekotasuna lantzeko proiektu bat onartuta izatea.	☐
Ildo bakarra: 15 p.	Euskara ardatz izango duen kulturartekotasun proiektu bat lantzeko bidean izatea.	☐
Ildo bi: 25 p.	Talde eragile bat sortuta izatea guraso, irakasle eta zuzendaritzako kideen partaidetzarekin euskara-kulturartekotasun proiektu bat lantzeko.	☐
	Proiektzioa: herri mailara zabaltzeko ekintzak egitea.	☐
Hiru ildo: 35 p.	Harrera plan bat onartua izatea ikasle etorri berriei euskararako bidea errazteko.	☐
	Hezkidetza: Proiektuan txertatuta egotea	☐
Lau ildotik gora: 44 p.	Aniztasun funtzionalak sortutako mugak gainditzeko neurriak.	☐



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2.- Prozeduratik kanpora geldituko dira, guztira, 40 puntu baino gutxiagorekin haztaturiko proiektua duten eskabideak eta, beraz, dirulaguntza ukatuko da.

3.- Proiektuak zenbaturiko 20 orri izango ditu gehienez; ez dira baloratuko muga horretatik gorako orri guztiak. Eranskinak gehitu ahal izango dira muga hori gaindituta, betiere, behar bezala zenbatuta eta justifikatuta badaude eta soilik proiektua argitzeko badira.

HAMABIGARRENA.- Zenbatekoa eta mugak

1.- Eskatzaile bakoitzari banaka ezarriko zaion diru-kopurua izango da dirulaguntza. Beheranzko ordenan emango da dirulaguntza finkaturiko irizpideak haztatuta lorturiko puntuazioaren arabera, eskuragarri dagoen aurrekontua agortu artean:

- 81-100 puntu lortu dituzten eskabideek eskaturiko zenbatekoaren %100a eskuratuko dute.
- 71-80 puntu lortu dituzten eskabideek eskaturiko zenbatekoaren %90 eskuratuko dute.
- 61-70 puntu lortu dituzten eskabideek eskaturiko zenbatekoaren %80a eskuratuko dute.
- 51-60 puntu lortu dituzten eskabideek eskaturiko zenbatekoaren %70a eskuratuko dute.
- 40-50 puntu lortu dituzten eskabideek eskaturiko zenbatekoaren %60a eskuratuko dute.

Diru partida nahikorik ez balego, bakoitzari dagokionaren zati proportzionala esleituko litzaioke, kalkulua hiruko erregela bidez eginda.

2.- Inola ere ezin izango da eman eskaturikoa baino kopuru handiagoa, ezta urtean kontsignatutako kreditu osoaren %25a. Edozelan ere, behin balorazioa eta banaketa eginda, dirurik geratuz gero, gainditu ahal izango da %25eko muga hori eta %100erainoko laguntza ere jaso ahal izango da.

3.- Salbuespenez, aurreko lerroaldean ezarritakotik gorako portzentajea edo kopurua eman ahal izango da baldin eta, Ondarroako Udalaren iritziz eta aurretik Hezkuntza arloko teknikariaren txostena izanik, gainjarritako jarduerak edo programak eta interes publikoko edo gizarte erabilgarritasun arrazoi bereziak gertatzen badira.

4.- Eman beharreko zenbateko osoak horretarako izendatutako aurrekontu-kredituan kontsignatutako kopurua gainditzen badu, zenbateko hori dirulaguntza guztien artean proportzionalki eta lortutako puntuazioaren arabera banatuko da. Horrela,



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

lortu beharreko puntuazio minimoa gainditu duten eskaera guztiak dirulaguntza bat jaso ahal izango dute.

HAMAHIRUGARRENA.- Ukatzeko zioak

Eskaturiko dirulaguntza ukatzeko zioak izango dira honako hauek:

- a) Dirulaguntza emateko eskaturiko beharkizunak edo deialdi honetako edozein puntu ez betetzea.
- b) Errealitatearekin bat ez datozen datuak daudela egiaztatzea, bai eskabidean, bai aurkezturiko agirietan, betiere izan litezkeen gainerako erantzukizunei kalterik egin gabe.
- c) Laguntza eskatzen deneko jarduera edo egitaraua beste herri administrazio bati ematea egokitzea, laguntza motagatik edo bizilekuagatik.
- d) Ondarroako Udalaren aldetik aurreko deialdietan jasotako dirulaguntzak direla-eta aurkezteke izatea azalpen-memoria edo egiaztagiria.
- e) Aurkezturiko proiektu teknikoaren balorazioan 40 puntutik beherako puntuazioa lortu izana.

HAMALAU GARRENA.- Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok eta, nolatan ere, edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntza eskuratzeak berau emateko ebazpena aldatzea ekar lezake, baita itzultzea ere.

HAMABOS GARRENA.- Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak

1.- Honako hauek egin behar dituzte dekretu honen itzalpean emandako dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek:

- a) Helburua bete, proiektua betearazi, jarduera egin edo laguntza emateko oinarria den jokabidea hartu.
- b) Beharkizunak eta baldintzak betetzea justifikatu laguntza eman duen organoaren edo erakunde laguntzailearen aurrean, baita jarduera egin eta dirulaguntza emateko edo baliatzeko ezarritako helburua bete ere. Onartutako proiektu osoarena da justifikatu beharreko zenbatekoa, ez bakarrik Ondarroako Udalak emandakoa.
- c) Laguntza eman duen organoak edo erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapenen menpe jarri, hala denean, baita kontrol organo eskudun



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

nazionalak nahiz komunitarioek egin ditzaketen bestelako egiaztapen eta kontrol finantzariokoak ere. Hartara, aurreko jarduketetan eskaturiko informazio guztia eman beharko dute.

- d) Dirulaguntza jaso duten jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi laguntza eman duen organoari edo erakunde laguntzaileari. Horien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolatan ere, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen, arauetan ezarritako eran betiere.
- f) Kontabilitate-liburuak, eginbidea duten erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezalako auditoretza pean jarrita izan kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza eta sektoreko legerian galdaturikoaren arabera, baita dirulaguntzen gaineko arauetan galdaturiko kontabilitate-egoera orriak eta erregistro espezifikoak ere, betiere egiaztapenerako eta kontrolerako ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.
- g) Jasotako fondoen aplikazioa egiaztatzen duten agiriak gorde, dokumentu elektronikokoak barne, egiaztapen eta kontrolerako jarduketan menpe jar daitezkeen bitartean.
- h) Diruz lagundutako jarduera bat euskara ez den beste hizkuntza batean burutu behar bada, jardueraren beraren jendaurreko aurkezpena euskaraz egingo da, gutxienez; hori guztia, EAEko hizkuntzen koofizialtasuna arautzen duten arauak kontutan izanda.
- i) Sustapeneko elementuetan eta karteletan sartu dirulaguntza jaso duen jardueran izan litezkeen testuak edo dokumentuak. Izan ere, euskaraz edo, salbuespenez, bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira, eta Ondarroako Udalaren babesa dutela aipatu behar da, dirulaguntza jasotzen duen edozein eratako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketaren izaera publikoari publizitate egokia emateko.
- j) Bere jardueren baitan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu ahal den guztietan.

2.- Pertsona edo erakunde eskatzaileari dagokion edozein betebeharrak ez betetzeak berekin dakar nahitaez kasu bakoitzean ordaindutako diru-kopuruak itzultzeko eskubidea desegitea.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

1.- Laguntza jaso duen jarduera amaitutakoan, ezarritako baldintzak bete izana eta dirulaguntza emateko ekintzan aurreikusitako helburuak lortu izana justifikatu beharko da nahitaez, justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztuz.

2.- Hona hemen horretarako aurkeztu beharreko agiriak:

a) Garatutako jarduerari buruzko memoria zehatza. Bertan, alderdi garrantzitsu guztiak jasoko dira, bai eta aurreko edizioekin edo ekitaldiekin alderatuta egin daitezkeen berrikuntzak edo hobekuntzak ere.

Egindako jardueretan parte hartu duten pertsonen sexuaren eta/edo generoaren arabera bereizitako informazioa jaso beharko du memoriak, berdintasunaren ikuspegitik behar bezala ebaluatu ahal izateko.

Era berean, dirulaguntzaren xede den jarduera dela-eta egindako azterlanen, programen, argitalpenen, kartelen edo bestelako dibulgazio- edo informazio-materialen ale bat aurkeztu beharko da, bai eta jarduera benetan garatu dela egiaztatzen duen dokumentazio grafiko edo idatzi guztia ere.

b) Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa. Atal hauek izango ditu:

1) Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoan justifikazioa.

Atal hau beteko da proiektua edo jarduera hainbat erakunde publikok edo pribatuk finantzatzen badute eta/edo erakunde onuradunaren baliabide propioekin.

2) Diruz lagundutako proiektuari dagokion gastuaren frogagiriaren zerrenda.

Atal hau beteko da udal-dirulaguntzari egozten zaizkion proiektuaren gastuak justifikatzeko, eta gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuta.

Diruz lagundutako jardueraren ondorioz egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, onartutako programaren guztizko zenbatekora arte.

Egiaztagiri horiek fakturak, nominak eta gizarte-aseguruak izango dira, edo, bestela, egindako gastua behar bezala egiaztatzen duten froga-balio baliokidea duten beste dokumentu batzuk, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak.

Fakturekin batera ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztu behar dira. 1.000,-€tik beherako gastuak egin badira eta eskudirutan ordaindu bada; fakturan bertan ordaindu dela adierazi beharko da.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN,



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

AIZ edo pasaporteak). Alde horretatik, zenbatekoa 1.000 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

c) Behar bezala aurkeztutako jarduerak eragindako sarreren eta gastuen balantzea (Justifikazioaren I. Eranskina - Ekintzak sortutako gastuak eta diru sarrerak).

Sarreren zerrendan, edozein kontzepturengatik lorturikoak azaldu beharko dira, bazkideen kuotenak nahiz laguntza ekonomikoak -publikoak edo pribatuak-eta jasotako bestelako diru-sarrera hala nola sarreren salmenta, materialaren salmenta, zozketak, etab.

d) Justifikazioaren **II. Eranskina** - Bidaien gastuak (Norberaren autoarekin), hala dagokionean.

e) Banatutako **sarien egiaztagiria**, hala dagokionean.

f) Publizitatea, hala dagokionean.

Beste erakunde publiko edo pribaturen laguntzarekin edo baliabideekin batera finantzatu bada jarduera, justifikazioko zatia den aldetik, fondo horiek dirulaguntza jaso duten jardueretan aplikatu izana eta egokia izana egiaztatzea beharko da.

3.- Dirulaguntza justifikatzeko epea 2026ko urriaren 31an bukatuko da.

4.- Baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak aurkezturiko dokumentu originalak behar baditu, fotokopiarekin batera aurkeztuko dira. Fotokopia behar bezala digitalizatuko da, eta originala dokumentuak aztertu eta digitalizatu eta gero itzuliko da; itzulpena ez da berehala egingo, beraz.

5.- Ez dira onartuko gastuen justifikazio gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretuan, urtarilaren 22koa, Fakturazio- betebeharrei buruzko Araudia onesten duenak, ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten fakturak. Datu hauek agertu beharko dira derrigorrez, beraz:

- Zenbakia eta, halakorik badago, saila.
- Zein egunetan egin den.
- Faktura egin behar duenaren zein eragiketaren hartzailearen izen-deiturak edo, sozietateak izanez gero, sozietatearen izen osoa.
- Faktura egin behar duenak eragiketan erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko estatueta administrazio eskudunek emana osoa.
- Faktura egin behar duenaren helbidea zein eragiketen hartzailearena.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- Eragiketen deskripzioa.
- Eragiketei aplikatutako BEZaren zerga-tasa.
- Jasanarazitako zerga-kuota, egonez gero, bereiz adierazi behar dena.
- Adierazi behar da dokumentatzen den eragiketa zein egunetan egin den.

Faktura batean dokumentatzen den eragiketa BEZ ordaintzetik salbuetsita badago, hori jasota dagoen Foru Arauaren edo Estatuko araudiaren aipamena egingo da.

Era berean, ez dira justifikaturiko gastutzat hartuko PFEZren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) konturako atxikipenen arloko Zerga Araudia betetzen ez duten fakturak.

Bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa dirulaguntzen justifikazioan erabiltzea arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan ezarritakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoa aurkeztea onartuko da frogagiri gisa.

Aurkezturiko frogagiri guztiek kasuan kasuko deialdiko ekitaldiko data eduki beharko dute nahitaez.

HAMAZAZPIGARRENA.- Ordainketa

1.- Dirulaguntza emandakoan eta ebazpena jakinarazitakoan, emandako kopuruaren %100 sartuko da dirulaguntza jaso duen elkartearen edo entitatearen titularrak adierazitako kontu korrontean justifikazioa baino lehen, proposaturiko egitarauari edo jarduerari datxekion jarduketak burutu ahal izateko finantzazio gisa.

2.- Laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da pertsona edo erakunde onuraduna ez egotea administrazio-bidean ebazpen irmoa eragin duen itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten eraginpean, ez eta Ondarroako Udalak emandako izaera bereko laguntzen esparruan eska daitezkeen itzulketa-betebeharren eraginpean ere.

Era berean, dirulaguntza ordaintzeko, pertsona edo erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu Ondarroako Udalak emandako dirulaguntzak justifikatzeko betebeharrak, ezarritako epeak amaitu ondoren eta, hala badagokio, horretarako errekerimendua egin ondoren.

HAMAZORTZIGARRENA.- Lehia eta bateraezintasunen araubidea

Banaka emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izan daiteke honelakoa inola ere: bakarka edo nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo pribatu



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

batzuetako beste laguntza, dirulaguntza eta gainerako sarrerekin batera dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua gainditzen duena.

HEMERETZIGARRENA.- Dirulaguntza itzultzea

1.- Jasotako laguntzak itzuli egin beharko dira, bai eta berandutze-interesa eskatu ere, dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Ondarroako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 38. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan eta Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako kasuetan.

2.- Jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko da, eta Ondarroako Udalaren Zergen kudeaketa, Zerga bilketa eta Ikuskaritzaren Udal Ordenantza Orokorren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako prozeduraren arabera kobratuko da.

3.- Itzulketa-prozedura Ondarroako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren II. tituluan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

HOGEIGARRENA.- Datuen babesa

Ondarroako Udalak, datu pertsonalak babesteari buruzko 2018ko maiatzaren 25eko 2016/679 DBEO betez, jakinarazten du eskaeran egitean emandako datu pertsonalak gordeko direla erakunde honen jabetzakoak diren izaera pertsonaleko datuak gordetzeko fitxategi automatizatueta, erakundearen eskumenekoak diren udal-kudeaketaren berezko eginkizunak gauzatzeko helburuaz. Hala nahi izanez gero, eskubidea izango da datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko Heritarren Arreta Bulegoan (HAB).

HOGEITA BATGARRENA.- Araudi aplikagarria.

Erabaki honetan aurreikusi ez den guztia Ondarroako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, deialdi bakoitzaren unean indarrean dagoen Aurrekontua Betearazteko Arauan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.

HOGEITA BIGARRENA.- Interpretazioa eta hizkuntza-araubidea

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.

Ondarroan, sinadura digitaleko datan.

Sin.: Alkatea
Urtza Alkorta Arrizabalaga

DIRULAGUNTZA ESKAERA

URTEA: 2023 2024 2025 2026

ESKATZAILEAREN DATUAK		
IZEN-ABIZENAK/ELKARTEAREN IZENA		NA/IFK
HELBIDEA		
UDALERRIA	PROBINTZIA	P.K.
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
ORDEZKARIAREN DATUAK*		
IZEN-ABIZENAK		NA/IFK
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
*Elkarteko presidentea ez bazara, <i>Ordezkaritza eredu</i> a aurkeztu behar duzu.		
JAKINARAZPENAK JASOTZEKO DATUAK		
HELBIDEA		
UDALERRIA	PROBINTZIA	P.K.
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
LERROA		
BERDINTASUNA KULTUR ANIZTASUNA ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA GIZARTE ARLOKO ELKARTEAK INGURUMENA		HEZKUNTZA KULTURA KIROLA EUSKARAREN SUSTAPENA
AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK		
IFK		Lehen aldia bada edo aldaketarik egon bada.
I. Eranskina - Ekintza edo proiektuaren aurrekontua		
II. Eranskina - Erantzukizunpeko adierazpena		
III. Eranskina - Hartzekodunen-fitxa		Lehen aldia bada edo aldaketarik egon bada.
Pertsonalaren zerrenda eta kostuaren aurrekontua		Pertsonal propioa jarduera egiteko egozten denean.
DOKUMENTU EGIAZTAGARRIAK		
Ondorengo dokumentazioa ez da zertan aurkeztu baldin eta Udalak bere esku badu edo Administrazioetatik lortzeko modua badu. Uko egin ahal diozu (markatu) eta zuk aurkeztu, baina arrazoia eman behar dituzu.		
ARRAZOIA		
Eskatzailearen NA.		
Ogasuneko ordainketak egunean izatea egiaztatu.		
Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea egiaztatu.		

Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroan inskribatuta egotea eta eskatzaileak duen kargua		
---	--	--

MEMORIA: EKINTZAREN PROIEKTUA ZEHAZTEA	
Ekintzaren proiektuaren izena	
Ekintzaren deskribapena	
Ekintzaren iraupena eta egutegia	
Helburuak	
Parte hartzaile kopurua	Emakumeak Gizonak Ez-binarioak
Bazkide kopurua	Emakumeak Gizonak Ez-binarioak
Ekintzarako jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena	
Oharrak	

Ondarroan, _____(e)ko _____ (a)ren _____(e)an

Sinadura.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoan (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrean (DBEO) jasotakoaren arabera. **Tratamendu Arduraduna:** Ondarroako Udala dela, Musika plaza z.g. 48700 Ondarroa (Bizkaia) dbo@ondarroa.eus. **Tratamenduaren Xedea:** Sarrera-Irteeren erregistroaren kontrola eta dokumentu honetako eskaera tramitatzea. **Tratamenduaren Zilegitasuna:** botere publikoen jardunak agindutako misioa betetzea. Daturik ez zaie emango hirugarren batzuei, lege-eginbeharra izan ezean. **Eskubideak:** atzipen, zuzenketa, ezereztatze, tratamenduaren mugatze eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak, besteak beste, hemen aipaturiko bideak helbideak erabiliz gauzatu daitezke. Informazio gehigarria Udalaren webgunean, Datuen Babeseko atala.

[illegible]

3/4

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ADIERAZTEN DUT:

Dirulaguntza publikoen onuradun izateko baldintzak betetzen ditudala, (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikulua).

Helburu berbera duen beste dirulaguntzarik EZ dudala jaso estatu mailako edo nazioarte mailako administrazio publikoengandik edo erakunde publiko zein pribatuengandik.

Helburu berbera duten beste dirulaguntza batzuk BAI jaso dituela (edo eskatu dituela) eta hauek aurrekontuan (II. Eranskina) agertzen dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko indarreko araudia betetzen dudala.

Ez dudala dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten duen administrazio- edo zigor-zehapenik.

Eta hala ager dadin, aitorpen hau sinatu egiten dut.

Ondarroan, _____(e)ko _____(a)ren _____(e)an.

Sinadura.

III. ERANSKINA HARTZEKODUNEN-FITXA

MUGIMENDU MOTA

BERRIA - ALTA
ALDAKETA

ERAKUNDE/ESKATZAILEAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK/ELKARTEAREN IZENA	
NA / IFK	
HELBIDEA	
UDALERRIA	
P.K.	
TELEFONOA	
POSTA ELEKTRONIKOA	

ORDEZKARIAREN DATUAK

NA	
IZEN-ABIZENAK	
ERAKUNDEKO KARGUA	

FINANTZA ETA ERAKUNDEAREN DATUAK

IZENA	
BULEGOA	
BIC	
IBAN (20 digitu)	

Ondarroan, _____(e)ko _____(a)ren _____(e)an.

Sinadura.

DIRULAGUNTZA JUSTIFIKAZIOA

URTEA: 2023 2024 2025 2026

ESKATZAILEAREN DATUAK		
IZEN-ABIZENAK/ELKARTEAREN IZENA		NA/IFK
HELBIDEA		
UDALERRIA	PROBINTZIA	P.K.
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
ORDEZKARITZAREN DATUAK*		
IZEN-ABIZENAK		NA/IFK
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
*Elkarteko presidentea ez bazara, <i>Ordezkaritza eredu</i> a aurkeztu behar duzu.		
JAKINARAZPENAK JASOTZEKO DATUAK		
HELBIDEA		
UDALERRIA	PROBINTZIA	P.K.
TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA

LERROA		
BERDINTASUNA KULTUR ANIZTASUNA ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA GIZARTE ARLOKO ELKARTEAK INGURUMENA	HEZKUNTZA KULTURA KIROLA EUSKARAREN SUSTAPENA	
PROIEKTURAKO LORTUTAKO BESTE DIRU-LAGUNTZAK		
Ondarroako Udalean, besterik ez	Beste dirulaguntza bat	
	Erakundea	Diru-kopurua
JUSTIFIKAZIORAKO AURKEZTUTAKO AGIRIAK		
Memoria (Ekintza fitxak)		
Memoria ekonomikoa: beste erakundetako dirulaguntzak eta egindako gastuen egiaztagiriak		
I. Eranskina - Ekintzak sortutako diru-sarrerak eta gastuak		
II. Eranskina - Bidaiei gastuak (Norberaren autoarekin)		
III. Eranskina - Banatutako sarien egiaztagiria		
Publizitatea		
Bestelako agiriak		

MEMORIA: EKINTZAREN PROIEKTUA ZEHAZTEA	
Ekintzaren proiektuaren izena	
Ekintzaren deskribapena	
Ekintzaren iraupena eta egutegia	
Helburuak	
Parte hartzaile kopurua	Emakumeak Gizonak Ez-binarioak
Bazkide kopurua	Emakumeak Gizonak Ez-binarioak
Ekintzarako jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena	
Oharrak	

Ondarroan, _____(e)ko _____(a)ren _____(e)an

Sinadura.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoan (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrean (DBEO) jasotakoaren arabera. **Tratamendu Arduraduna:** Ondarroako Udala dela, Musika plaza z.g. 48700 Ondarroa (Bizkaia) dbo@ondarroa.eus. **Tratamenduaren Xedea:** Sarrera-lrteeren erregistroaren kontrola eta dokumentu honetako eskaera tramitatzea. **Tratamenduaren Zilegitasuna:** botere publikoen jardunak agindutako misioa betetzea. Daturik ez zaie emango hirugarren batzuei, lege-eginbeharra izan ezean. **Eskubideak:** atzipen, zuzenketa, ezereztatze, tratamenduaren mugatze eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak, besteak beste, hemen aipaturiko bideak helbideak erabiliz gauzatu daitezke. Informazio gehigarria Udalaren webgunean, Datuen Babeseko atala.

I. ERANSKINA
EKINTZAK SORTUTAKO GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK

DIRU-SARRERAK		GASTUAK						
ESKATZAILEAREN EKARPENA		Gastuaren azalpena	Faktura zka.	Faktura data	Hornitzailea	IFK	BEZ (%)	Zenbatekoa
DIRULAGUNTZAK								
Eusko Jaurlaritza								
Foru Aldundia								
Udalak onartutakoa								
BABESLE PRIBATUAK								
BESTE DIRU-SARRERAK								
Sarreren salmenta								
Matrikulak								
SARRERAK, GUZTIRA		GASTUAK, GUZTIRA						

Oharra: Aurrekontu orekatua osatu behar da. Horrek esan nahi du gastuen kopurua eta diru sarreren kopurua berdinak izan behar direla. Fakturarekin batera ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztu behar dira. 1.000€-tik beherako gastuak egin badira eta eskudirutan ordaindu bada, fakturan bertan ordaindu dela adierazi beharko da, hau da, "ordainduta" idatziz.